

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### **Ibilgailuak espaloietan zehar sartzeko eta aparkalekua gordetzeko (pasabideak) tasaren 2023ko errola jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldiaren hasiera**

Eginda dago udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik (A epigrafea), alegia, ibilgailuak finken barrualdera espaloien gaineratik sartzegatik eta horietan bide publikoan aparkalekua gordetzeagatik, ordaindu beharreko tasaren 2023ko errola. Hortaz, honen bidez, errola hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errola behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

#### I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2023ko otsailaren 20tik apirilaren 20ra.

B) Betearazte aldia: 2023ko apirilaren 21etik aurrera betearazte aldia hasiko da, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

#### II. Ordaintzeko lekua eta modua:

##### A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

##### B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Santander edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizka mugaeguneratu eta taldeka jakinarazten diren zorrak izanik, berraztertzeko erre-kurtsoa jarri ahal izango zaio Alkatezari, ordainketa egiteko borondatezko aldian edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2023ko urtarrilaren 16a

*Alkatea*

**MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ**